

## Euskal enpresen %17,3k berrikuntza teknologikoa egin zuen 2012an, 10 langile eta gehiagokoen %36,2k

### Berrikuntza teknologikoan eginiko gastua %3,4 gutxitu zen 2011ren aldean

Eustaten arabera, Euskal AEn 2012an enpresa berritzaileen portzentajea %17,3 izan zen, berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa zelarik. 10 enplegatu eta gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuz, enpresa berritzaileak %36,2 dira, 2011n baino ehuneko 1,6 puntu gutxiago.

#### 1. taula: Enpresak berrikuntza motaren eta tamainaren arabera. 2010-2012

| Euskal AE                       | Berrikuntza teknologikoa |           | Enpresa berritzaile teknologikoak | Berrikuntza ez-teknologikoa |                | Enpresa berritzaile teknologikoak | Enpresa berritzaileak (1) | Enpresa berritzaile EIN (1) (2) |
|---------------------------------|--------------------------|-----------|-----------------------------------|-----------------------------|----------------|-----------------------------------|---------------------------|---------------------------------|
|                                 | Produktuan               | Prozesuan |                                   | antolamenduan               | merkaturatzean |                                   |                           |                                 |
| <b>Guztira</b>                  | 6,5                      | 9,5       | 11,6                              | 6,9                         | 6,1            | 10,0                              | 17,3                      | 17,7                            |
| <b>10 enplegatu eta gehiago</b> | 19,6                     | 22,9      | 28,6                              | 18,7                        | 11,6           | 23,1                              | 36,2                      | 38,3                            |

(1) Berrikuntza teknologikoa eta/edo ez-teknologikoa

(2) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako enpresak barne daude.

Iturria: Eustat. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

2010-2012 aldian **berrikuntza teknologikoa** eginiko enpresak guztien %11,6 izan ziren Euskal AEn; aurreko aldian baino ehuneko 0,7 puntu gutxiago. 19.466 enpresa. Enpresa **berritzaile teknologikotzat** hartzen dira **merkatuan produktu berriren bat** (ondasuna edo zerbitzua) edo **asko hobetutako produkturen bat** sartu dutenak (%6,5, 2012an), edota establezimenduaren baitan prozesu berriren bat edo asko hobetutako prozesua sartu dutenak (%9,5).


Ehuneko horiek %28,6raino iristen dira, 10 langile edo gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuta, aurreko urtean baino ehuneko 2,1 puntu gutxiago. Enpresa horien artean, produktua eraberritu dutenak %19,6 izan dira, eta prozesua eraberritu dutenak %22,9.

### Euskal AEko enpresek egindako gastua teknologia berritzeko jardueretan, BPGren %4 izan zen

Euskal AEko enpresek 2.583,7 milioiko gastua egin zuten 2012an teknologia berritzeko jardueretan; aurreko urtearen aldean %3,4 gehiago. Gastu hori BPGren %4 da.

Berrikuntzarako behar diren jarduera garrantzitsuenen artean banatuz gero, honako hauek nabarmentzen dira: barruko I+G (%53,1); makinak eta ekipoak erosteko gastua (%19,6); kanpoko I+Gren erosketa %14,3; gainerako jarduerak %13,0.

### 1. grafikoa: Berrikuntza gastuaren banaketa jardueren arabera (%). 2012 urtea



Iturria: Eustat. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta (BTI)

### Enpresa berritzaileen %29,4k finantzaketa publikoa jasotzen du.

Laguntza horren jatorriari behatuz gero, Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da, laguntza guztien %21,5. 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan, %56,0k laguntzak jasotzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritza da, halaber, enpresarik gehien finantzatzen duena. Zehazki, enpresen %45,8.

### 2. taula: Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileak, finantzazioaren jatorriaren arabera (%). 2010-2012

Unitatea: enpresa portzentajea

|                                                    | Guztira     | 10 langile edo gehiago |
|----------------------------------------------------|-------------|------------------------|
| <b>Finantzaketa publikoajasozen dute hauetatik</b> | <b>29,4</b> | <b>56,0</b>            |
| Tokiko administrazioak                             | 3,5         | 7,7                    |
| Foru aldundiak                                     | 8,6         | 14,7                   |
| Eusko Jaurlaritza                                  | 21,5        | 45,8                   |
| Administrazio zentrala                             | 8,9         | 21,0                   |
| Europar Batasuna                                   | 2,4         | 9,3                    |

Iturria: Eustat. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta (BTI)

### Enpresa berritzaileen %83,9k uste du berrikuntzak eragin positiboa duela

%80,5ek uste du berrikuntzak eragin positiboa duela produktuei buruz, ondasunak zein zerbitzuak izan; %58,3k barne-prozesuei buruz; %31,4k bestelakoei buruz, esaterako ingurumen inpaktu txikiagoa edo osasun hobea langileentzat. 10 langile edo gehiagoko

enpresa berritzaileetan, %92,8k uste du eragin positiboa duela; beste portzentajeak %85,1, %71,8, %55,2 eta %48,8 dira.

### **Faktore jakin batzuek teknologia-berrikuntza oztopatzen dutela uste du enpresen erdiak baino gehiagok**

Enpresen %60,5ek uste du teknologia-berrikuntza zailtzen duten faktoreak badirela. Faktore horien artean, gehiegizko arrisku ekonomikoak (%43,0), berrikuntzen kostu handiegiak (%46,5), eta finantza-iturri falta (%45,9) nabarmentzen dituzte enpresek. 10 langile baino gehiagoko enpresetan, berrikuntza oztopatzen duten faktoreak badirela uste dutenak %70,1 dira, aipatutako oztopoak berberak direlarik.

**Berrikuntza ez-teknologikoa** (%11,6) **antolaketa- edo merkaturatze**-berrikuntzek osatzen dute. **Antolaketa-berrikuntza** enpresa barruan antolatze-metodo berriak ezartzea da enpresako barne-funtzionamenduan; euskal enpresen %6,9k egiten dute. **Merkaturatzearena** lehen erabili ez diren edo aurrekoak bezalakoak ez diren merkataritzako estrategia edo kontzeptuen egikaritzea da; Erkidegoko enpresen %6,1ek egiten dute. 10 langile eta gehiagoko enpresetan, berrikuntza ez-teknologikoa %23,1 da eta antolamenduan datza %18,7an eta merkaturatzean %11,6an.

---

#### **Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62*

*Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Prentsa-ohar gehiago*

*Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Datu-bankua*